

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure negozio-ereduak funtziona dezan hainbat funtsezko jarduera egin behar ditugu. Jarduera hauek egitea balio-proposamenaren eskaintza garatzea, bezero potentzialengana iristea, haiekin eraginkortasunez harremanetan jartzea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetu beharko ziguten.

Zenbait funtsezko jarduera mota daude: Lehenik eta behin, ekoizpena eta hemen, produktua disenatu, ekoiztu eta bezeroei entregatzen da. Produktua disenatzeaz eta ekoizteaz Haritz Otaegi arduratuko da, bera delako enpresaren funtzionamenduetaz eta produktuaren sortze-prozesuetaz arduratzen dena. Honetaz gain, lehen aipatu dugun bezala, produktua bezeroei entregatzeko banaketa-enpresa batekin elkartuko gara. Hau noski diru kantitate egokia lortzen dugunean, horregatik bitartean guk banatu beharko dugu produktua. Bigarrenik, arazoak konpondu behar dira. Azkenik, plataformako edo sareko jarduerak kontrolatzea da funtsezkoa, plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea. Azken arlo honetaz enpresako lau taldekideak ezingo gara arduratu, ez garelako espezializatuak informatikaren arloan. Horretarako, informatiko bat kontratatu beharko dugu, plataforma teknologikoak kudea dezan.

Halere, gure enpresako funtsezko jarduera garrantzitsuenak bi dira, bai ekoizpena eta bai banaketa. Lehenik eta behin, ekoizpena kalitatezkoa izatea ezinbestekoa da produktuak arazorik eduki ez dezan, hau da, produktuaren ekoizpena gure enpresaren muina da. Honetaz gain, banaketa ere oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, izan ere, azkenean produktua bezeroetara iristeko modu bakarra da.

Halere, gure enpresaren barneko zereginak identifikatu behar ditugu. Alde batetik, gure enpresaren produktuaren banaketa, jada diru nahikoa dugunean, beste enpresa bateri utziko diogu, ez digulako balio erantsirik ematen. Bestalde, gure produktuaren sorkuntzan, gure enpresaren muina denez, pertsonalki gu arduratuko gara, gure aktibo garrantzitsuena delako noski.